





amma



INDIBA ACTIV

Indiba Activ erabiltzen duen tratamendua giza gorputza berregokitzeko mekanismo naturalak azeleratzean oinarritzen da nagusiki.

Irrati-frekuentziako uhinen bitartez, zelulen metabolismoa aktibatzen da, eta haien oreka berrezartzen da. Gainera, tratatutako ehunen baskularizazioa eta barne-tenperatura areagotzen dira.

INDIBA teknologia esku-terapiekin konbinatzeak tratamendu bakoitzaren emaitzak hobetzen ditu, eta irtenbide azkarragoak eta eraginkorragoak eskaintzen ditu.



ONURAK

- ♦ Ehunen berregokitzapena eta zikatrizazioa azeleratzen ditu.
- ♦ Patologia akutuak eta kronikoak hobetzen ditu
- ♦ Lehen saiotik murrizten du mina
- ♦ Teknikak ez du kalterik eragiten, eta segurua da

TRATAMENDUAK

- ♦ Patologia akutuak, kronikoak edo subakutuak (artritisa, artrosia, fibromialgia, zerbikalgia, lunbalgia, bursitisa) eta arazo muskulueskeletikoak (hematomak, hausturak, muskulu hausturak, bihurrituak...).
- ♦ Kirol-fisioterapiarako aliatu ezin hobea da, ehunaren konponketa optimizatzeko eta lehiaketaren ondoren muskuluen indarberritzea azkartzeko aukera ematen baitu. Kirola egin aurreko prestakuntzan laguntzen du eta kirol etekina hobetzen du.
- ♦ Zoru pelbikoa tratatzeko erabilera nabarmentzen dugu. Gizonezkoetan zein emakumezkoetan, pelbiseko giharrak hobetzen ditu, eta eremua suspertzen du. Gernu-inkontinentzia, hemorroide, uzki-pitzadura eta abarren arazoak murrizten ditu. Gainera, oso lagungarria da muskulu-urradurak eta erditze ondoko episiotomiak berreskuratzeko.
- ♦ Fizioestetika: zelulen metabolismoa aktibatzen eta barne-tenperatura igotzen duenez, zirkulazioa hobetzen du, eta azalari sendotasuna ematen dio. Hortaz, azalaren egoera hobetzen da (azalaren biguntasuna, orbainak, ildaskak), eta likidoen atxikipena zein zelulitisa murrizten dira.



amma

KONTAKTUA

943 457 800

info@amma.es

www.amma.es